

OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUA

ARANGUREN IBARREKO UDALAREN INFORMAZIO BULETINA

MAIATZA 2023 / 62. ZK.

Nabarmentzekoak...

HAURTZAROA ETA FAMILIA

- ▶ UDAKO HIRI KANPALEKUA
- ▶ FAMILIA ESKOLA
 - TAILERRA: SEME-ALABEKIN ELKARBIZITZEKO ARAUAK ETA LIMITEAK
 - TAILERRA: GURE SEME-ALABEKIKO KOMUNIKAZIO AFEKTIBOA
- ▶ GURASOENTZAKO TAILERRA, ADIN TXIKIKOAK ETA ALKOHOLA
- ▶ HAURRENTZAKO MASAJE TAILERRA

BESTE ZERBITZU ETA JARDUERAK

- ▶ EMAKUME ETA FAMILIENTZAKO AHOLKULARITZA JURIDIKOAREN ZERBITZUA

LAN AURREKO TAILERRA

- ▶ HIRI ALTZARIAK MANTENTZEA ETA MARGOTZEA

ADINEKO PERTSONAK

- ▶ TAILERRA: MUGIKORRAREN ETA ORDENAGAILUAREN OINARRIZKO FUNTZIONAMENDUA

Aranguren Ibarreko Udaleko OGZen Informazio Buletina posta elektronikoz jaso nahi baduzu, msanpedro@aranguren.es helbidera mezu elektronikoa bidaliz eska dezakezu, eta adierazi izena, abizenak, telefonoa eta zein helbideran jaso nahi duzun buletina.

Modu horretan, Buletina e-postaz jasoko duzu eta Gizarte Zerbitzuko Arloari dagokion guztiari buruzko berri izanen duzu, eta garaiz.



MUTILOA PLAZA 2/G – MUTILOA
ORDUTEGIA: ASTELEHENETIK
OSTIRALERA
9:00ETATIK 14:00ETARA
TEL: 948151382

Aranguren ibarreko 2023ko HIRI KANPALDIA



Aranguren Ibarreko Udaleko Gizarte Zerbitzuak antolatzen duen Hiri Kanpaldia, batez ere, Aranguren Ibarreko emakume eta gizonen familia, lana eta bizitza pertsonala bateragarri egiten laguntzea dute helburu, eta, horrez gain, 4 eta 12 urte bitarteko (2011 eta 2019 bitartean jaiotakoak, biak barne) haurrentzako aisialdiko baliabide garrantzitsua da.



Maiatzak 23, 24 eta 25 – ERROLDATUAK
26 EZ ERROLDATUAK (plaza libreak geratzen badira)

948 012 012 TELEFONORA DEITUZ
(doan tarifa finkoa duten telefonoentzat) edo 012ra
(deiares kostua 0,34€)

ORDUTEGIA 08:00etatik 18:00etara

INFORMAZIO GEHIAGO:

OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUA

📍 Mutiloa plaza

🌐 www.aranguren.es

☎ 948 15 13 82

✉ rgarralda@aranguren.es



DATAK

Ekainaren 26etik 30era.
Uztailaren 17tik irailaren 1era.

ORDUTEGIA

Jantoki zerbitzua barne:
Goizeko 7:45etik 15:15era.

Jantoki zerbitzurik gabe:
Goizeko 7:45etik 14:00etara.

Sarrera goizeko 7:45etik 9:00etara egin ahalko da.
Irteera 13:30etik 14:00etara egin ahalko dute jantoki zerbitzurik ez dutenek eta 14:30etik 15:15era jantoki zerbitzua dutenek.

LEKUA

Mutiloako San Pedro Ikastetxe Publikoan, batez ere.

EGITARAJA

Gai ezberdinei buruzko tailerrak eta jolas edo kirol-jarduerak egingo dira, zeharkako kontzeptuak landuz (kulturartekotasuna, ingurumena, hezkidetzak, etab.).

Eguraldiak aukera ematen badu, jarduerak igerilekuan egingo dira.

KANPALDIAREN PREZIOA

Hiri-kanpaldiaren kostua honakoa da:

- Haur bat: 50 € astean.
- Bi haur: 87,50 € asteko.
- Hiru haur: 115,62 € asteko.

*Aukeratutako astea lau eguneko bada, prezioa egokitu egingo da.

Jantoki zerbitzua nahi izatekotan:

- Haur bakoitzeko asteko prezioa: 40 € (8 €/eguneko).



ANTOLAKETA

Haurrak taldeka banatuko dira bi irizpide hauen arabera:

ADINA:

- A taldea, 4 – 6 urtekoak. (2017-2018-2019 urteetan jaiotako haurrak).
- B taldea, 7 – 9 urtekoak. (2014-2015-2016 urteetan jaiotako haurrak).
- C taldea, 10 – 12 urtekoak. (2011-2012-2013 urteetan jaiotako haurrak).

HIZKUNTZA MODALITATEA

- **Gaztelaniazko taldea:** eguneroko jarduera ingelesez.
- **Euskara taldea:** eguneroko jarduera ingelesez.
- **Ingeleseko taldea:** ulermen eta elkarrizketa maila onarekin.

IZEN EMATEAK ETA ORDAINKETA

Izena emateko eta ordaintzeko 948 012 012 telefonora deitu behar da, maiatzaren 23, 24, eta 25ean, ERROLDATUEK, eta maiatzaren 26an, ERROLDATU GABEEK (plaza librean badaude).

- Familia-unitate bakoitzak parte hartuko duen seme-alaba bakoitzeko aurre-izen ematea egingo du.
- Hiri kanpaldiek 8 aste iraunen dute, eta familia bakoitzak gehienez ere 2 aste hautatzen ahalko ditu parte hartzeko. Izena ematen duen hurrenkeraren arabera esleituko dira plazak, eta txandakakoak izan daitezke.
- Gurasoek hautatutako asteak lehentasun-ordenaren arabera antolatu beharko dituzte, eta izena ematean beste aste batzuk erreserba gisa adierazi ahalko dituzte, eskatutakoak beterik baleude.
- Ez da epez kanpoko izen-ematerik jasoko.

FAMILIEN ESKOLA

“Udarako gure seme-alabekin elkarbizitzeko arauak eta limiteak”



Tailer hau batez ere 0 eta 18 urte bitarteko seme-alabak dituzten familiei zuzenduta dago eta doakoa da.

Errespetuzko hazkuntzan, funtsezkoa da adingabeak, nerabeak eta helduak kontuan hartzea.

Eta horrek guztiak, bizitzak berak bezala, jokoaren arauak ezartzen dituen testuinguruan arau eta limite batzuk daude. Jarraibide horiei esker, harmonian joka daiteke, eta galduta sentitzen bada berriro ere azter ditzake.

Arau eta limite horiek lantzeak bizikidetzak eta familiaren ekarpena ahalbidetzen ditu, eta zentzua ematen dio eguneroko jardunari.



Data: maiatzak 30, asteartea.

Horario: 18:30-20:00.

Izen-Ematea: maiatzaren 19tik 26ra, 012 telefonora deituz 8:00etatik 18:00etara (deiares kostua: 0,34 € edo 948 012 012 telefonora deituz, doan tarifa laua duten telefonoetarako).

Lekua: Irulegi Ikastetxe Publiko.

(Irulegi Mendia kalea).

Irakaslea: Sandra López, INEFen lizentziaduna eta Familia, haur eta gazteentzako Coaching Masterra duena.

Haurtzaindegi-zerbitzua egongo da, izena ematean alde aurretik adierazita.

“Gure seme-alabekiko kominikazio afektiboa”



Tailer hau batez ere 0 eta 18 urte bitarteko seme-alabak dituzten familiei zuzenduta dago eta doakoa da.

Ez dago komunikaziorik eza. Beti komunikatzen ari gara, eta batzuetan ez gara jabetzen zer egiten dugun, eta horregatik harritzen gaitu gertatutakoak.

Ez dugu ulertzen zer gertatu den, non eten den konexioa. Ezinezkoa egiten zaigu seme-alabengana hurbiltzea, txinpartek jauzi egiten dute... komunikazio afektiboa eta eraginkorra ikasi eta entrenatu egiten da.



Data: ekainak 6, asteartea.

Ordutegia: 18:30-20:00.

Izen Ematea: Maiatzaren 29tik ekainaren 5era, 012 telefonora deituz 8:00etatik 18:00etara (deiares kostua: 0,34 € edo 948 012 012 telefonora deituz, doan tarifa laua duten telefonoetarako).

Lekua: Irulegi Ikastetxe Publiko.

(Irulegi Mendia kalea).

Irakaslea: Sandra López, INEFen lizentziaduna eta Familia, haur eta gazteentzako Coaching Masterra duena. Haurtzaindegi-zerbitzua egongo da, izena ematean alde aurretik adierazita.

ADINGABEKO SEME-ALABAK DITUZTEN GURASOENTZAKO ALKOHOL-KONTSUMOARI BURUZKO PREBENTZIO-TAILERRA



Udarekin batera, herrietako jaiak iristen dira, denek hainbeste itxaroten dituztenak, lagunekin eta familiarekin gozatzeko.

Etxean, gure seme-alabekin, alkoholari buruz, kontsumitzen denari buruz eta festetan egiten denari buruz hitz egiteko garaia da

Horretarako, 12 eta 18 urte bitarteko seme-alabak

dituzten familientzako prebentzio hitzaldi bat proposatzen dizuegu Gizarte Zerbitzutik, nerabeen artean alkoholaren kontsumoaren prebentzioak duen garrantzia ezagutzeko.

Trebakuntza honen bidez, Aranguren Ibarreko familiak alkoholaren kontsumoaren aurrean babesteko faktoreak bultzatu nahi ditugu.

Ondorengo galderei eta antzekoei erantzunen zaie:

- “Zergatik da garrantzitsua alkoholaren kontsumoari aurrea hartzea?;
- Zergatik kontsumitzen dute alkohola nerabe batzuek?;
- Zer egin dezakegu familiatik?;
- Nire seme edo alaba alkohola kontsumitzen ariko al da?”

Prestakuntza honetan, lasaitasunerako zein alarmarako seinaleak identifikatuko dira, eta adingabeen alkohol-kontsumoari aurre egiteko tresnak eskainiko dira.



Data: asteazkena, ekainak 7.

Ordutegia: 18:00-20:00.

Lekua: Aranguren Ibarreko Udaleko Erabilera Anitzeko Gela (sarrera atriotik).

Nori zuzendua: 12 eta 18 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoentzat, lehenetasunez.

Maileak: Ilundain Fundazioko Psikologoa.

Izen Ematea: maiatzaren 29tik ekainaren 5a bitartean, 948 012 012 telefonora deituz, 8:00etatik 18:00etara



HAURRENTZAKO MASAJE TAILERRA

Gizarte Zerbitzuak haurrentzako masaje tailer bat antolatu du gurasoentzat, hilabete 1 eta 12 hilabete bitarteko haurrekin, ibiltariak ez direnak.

Lehenengo zati praktikoan, haur masajearen teknika ikasiko da, eta, bigarrenean, haurren masajearen eta kontaktuaren garrantziarekin zerikusia duten hainbat gairen garapen teorikoa egiten da, bai eta hazkunde-etapak eta horri lotuta masajeak izan behar dituen aldaketak ere.

Tailerraren azken zatian, une horretan parte hartzaileen kezka iturri izan daitezkeen hazkuntza-gaiak lantzeko tartea utziko da.

Era berean, hazkuntzan ardura partekatutak duen garrantzia landuko da.



Data: Larunbatetan, ekainak 3, 10, 17 eta 24.

Ordutegia: 10:30-12:00.

Lekua: Kultur Etxeko kanpoko aretoa.

Maileak: Carmen Martín.

Nori zuzendua: hilabete 1 eta 12 hilabete bitarteko ninien gurasoei.

Izen Ematea: 948 012 012 telefonora deituz, 8:00etatik 18:00etara, maiatzak 25 eta 31 bitartean.

EMAKUME ETA FAMILIENTZAKO AHOALKULARITZA JURIDIKOAREN ZERBITZUA



Emakume eta familientzako aholkularitza juridikoaren zerbitzua Aranguren Ibarrean errolatuta dagoen pertsona orori zuzenduta dago. Zerbitzu horretan, informazioa eta aholkularitza doan ematen da familia-gaiei buruz (banantzeak, dibortzioak, izatezko bikoteak, ezkontzako erregimen ekonomikoa...), lan-gaiei buruz (amatasun- eta aitatasun-baimenak, edoskitze baimenak, eszedentziak eta zainketetarako baimenak, kaleratzeak...), gizarte-segurantzaren prestazioei buruz (alarguntasun-prestazioak, zurtasun-prestazioak...), testamentu-xedapenak; emakumeen aurkako indarkeriari buruzko gaiak (salaketak, urruntze-aginduak...).



ARRETA ORDUTEGIA:

Asteartero, 10:00etatik 13:00etara, Aranguren Ibarreko Udaletxeko bigarren solairuan (Mutiloa plaza z/g).

Hitzordua eskatzeko edo informazio gehiagorako: Oinarrizko Gizarte Zerbitzua 948 151 382 telefonoan

Lan aurreko Tailerrak

HIRI ALTZARIEN MANTENTZEA ETA MARGOKETA

(50 ordu teoriko-praktiko)



Aranguren Ibarrean errolaturik dauden 18 eta 25 urte bitarteko pertsonentzat, langabezian eta Aranguren Ibarreko lan poltsan alta emanda eta indarrean daudenentzat zuzenduta. Lehenetasuna emanen zaie aurreko baldintzak bete eta Enplegu Planetik egindako lan aurreko tailerretan parte hartu ez dutenei eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzutik lehenetasunez jotzen direnei.

Data: uztailaren 17tik 31ra, biak barne

Taldea osatu ondoren itxaron zerrendan beste talde bat egiteko adina pertsona gelditzen bada, bigarren tailerra abuztuaren 1etik 14ra izanen da, biak barne.

Beste txanda bat osatzeko adina pertsona geratzen bada, azken taldea abuztuaren 16tik 29ra izango da.

Ordutegia: 07:30etik 12.30era, astelehenetik ostiralera.

Non emango den: Ikastaroa Aranguren Ibarreko eremu ezberdinetan ematen ahal da.


OHARRA: AURREIKUSITAKO DATAK ANTOLAKUNTZAREN BEHARREN ARABERA ALDATU AHAL IZANGO DIRA.

Plazak: Talde bakoitzak gehienez ere 8 pertsona izango ditu.

Izen Ematea: ekainaren 15 eta 16, 948 012 012 telefonora dei eginez, 08:00etatik 18:00etara.

60 URTETIK GORAKO PERTSONENTZAKO TAILERRA (lehentasunez)

“Ordenagailuaren eta mugikorraren oinarrizko funtzionamendua, artxiboak erabiltzea (erantsi, deskargatu, gorde...), posta elektronikoa, mugikorretik ordenagailura argazkiak pasatzea, telpark, google maps, eta beste aplikazioen erabilerak”



Tailer honen helburua da adinekoei teknologia hurbiltzea eta gailu eta tresna teknologikoen (ordenagailua eta mugikorra) erabileran autonomoagoak izateko beharrezkoak diren baliabideak eskaintzea

- ▶ Beste gai batzuen artean, ordenagailuaren eta mugikorraren oinarrizko erabilerari, posta elektronikoaren erabilerari, argazkiak beste gailu batean gordetzeko moduari, whatsAppen, Teleparken, Google Mapsen eta beste aplikazio interesgarri batzuen erabilerari buruz ikasi eta zalantzak argitu nahi dituzten pertsona guztiei zuzenduta dago.
- ▶ Tailerra ikasleen ezagutza-beharretara eta erritmora egokituko da.
- ▶ Tailer hau 60 urtetik gorakoentzat da (lehentasunez).
- ▶ Tailerra batez ere praktikoa izango da, eta beharrezkoa da parte-hartzaileek erabili nahi duten gailua ekartzea (mugikorra, tableta edo ordenagailua).



DATAK MAIATZAK 31, ASTEAZKENA, EKAINAREN 7A ETA 14A.
ORDUTEGIA ... 11:00ETATIK 13:00ETARA.
LEKUA JUBILATUEN ELKARTEKO JARDUEREN GELA,
MUTILOA PLAZAKO 5.EKO LEHENENGO SOLAIRUA.
EMAILEA: COCOKIDS.
IZEN EMATEA ... MAIATZAREN 22TIK 29RA, 948 151382 TELEFONORA
DEITUZ EDO rgarralda@aranguren.es HELBIDEAN